



**BBUP-KO OPEN SOURCE SISTEMEN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE ZK.: 3262**

|                                                          |                                                                                                                                                                                                      |
|----------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua</b> | <input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ                                                                                                                                  |
| <b>Espedientearen izapidea</b>                           | <input checked="" type="checkbox"/> Ohikoa, <input type="checkbox"/> Premiazkoa, <input type="checkbox"/> Larrialdia,<br><input type="checkbox"/> Aurreratua                                         |
| <b>Mota</b>                                              | <input checked="" type="checkbox"/> Irekia<br><input type="checkbox"/> Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.)<br><input type="checkbox"/> Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.) |

**A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA**

|                                                                     |                                                                                                                                                                   |
|---------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>1.- Botere adjudikatzailea:</b>                                  | Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa                                                                                               |
| <b>2.- Kontratazio-organoa:</b>                                     | <input type="checkbox"/> Zuzendaritza Batzordea<br><input type="checkbox"/> Presidentea<br><input checked="" type="checkbox"/> Gerentea                           |
| <b>3.- Kontratuaren arduraduna:</b>                                 | Félix Díaz de Rada                                                                                                                                                |
| <b>4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:</b> | <a href="mailto:contratacion@consorciodeaguas.eus">contratacion@consorciodeaguas.eus</a><br>Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-<br>zk.:94 4873100 |
| <b>5.- Kontratatzailearen profila:</b>                              | <a href="http://www.consorciodeaguas.eus">www.consorciodeaguas.eus</a><br><a href="http://www.contratacion.euskadi.eus">www.contratacion.euskadi.eus</a>          |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p><b>1.- Kontratuaren xedea:</b> Kontratu honen xedea da BBUPk dituen OPEN SOURCE sistemen laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea, baita Open sistema horietan softwarearen inbentarioa eta banaketa automatikoa egiteko tresna baten hedapena ere.</p> <p><b>2.- Bete beharreko premiak</b> Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Linux sistema eragilea duten zerbitzarien azpiegitura erabiltzen du gaur egun, baita zenbait sailei zerbitzua ematen dieten Open Source motako aplikazioak eta tresnak ere. Lehiaketa honen bidez, aurreko Open Source sistemen mantentze-lanak egiteko eta horiek hobetzeko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatu nahi da.</p> <p><b>3.- Lotetan banatzea:</b> <input type="checkbox"/> Bai <input checked="" type="checkbox"/> Ez<br/><b>Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa:</b> Egin beharreko garapenak gatazkan sar litezke maila funtzionalean eta berme-mailan; beraz, ez da lotetan banatuko, baldin eta kontrata desberdinek aldi berean jarduten badute kode berean.</p> |
| <p><b>4.- CPV:</b><br/>CPV kodea: 71356200-0<br/>Deskribapena: Laguntza teknikoko zerbitzuak</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |
| <p><b>5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:</b><br/><input type="checkbox"/> BAI<br/><input checked="" type="checkbox"/> EZ</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                          |
| <p><b>6.- Izaera juridikoa</b><br/><input checked="" type="checkbox"/> Administratiboa <input type="checkbox"/> Pribatua</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                               |



| D.-KONTRATUAREN EPEA                 |                                                                                                      |
|--------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| 1.-Guztizko iraupena:                | 12 HILABETE                                                                                          |
| 2.- Epe partzialak.                  | <input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ                                  |
| 3.- Luzapena                         | <input checked="" type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ<br>HAMABI HILABETEKO LUZAPEN BAT |
| 4.- Berme-epea:                      | Ez da behar.                                                                                         |
| 5.- Kontratua betetzeko tokia:       | BBUPren instalazioak                                                                                 |
| 6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak | <input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ.                                 |

## 2. orrialdea



#### **F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA**

Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (50.000 €).

#### **G.- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA**

Azken hiru urteetan egindako lanen zerrenda, kontratuaren xedearen mota edo izaera berekoa. Lanak zerbitzuan sartutako sistema guztiak instalatzeko, konfiguratzeko eta mantentze-lanak egiteko izango dira. Egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izango da, edo urteko batez bestekoa, hori kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen tekniko:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

#### **BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA**

Lantaldea osatuko duten pertsonen zerrenda adieraziko da. Proposatutako lantaldeari gutxienez bi urteko esperientzia tekniko eskatzen zaio lehiaketaren xede diren sistema guztietan, edo baliokidetasuna zehatz-mehatz deskribatzen den antzeko sistemetan, edo ezagutza justifikatzen duten ziurtagiri ofizialak aurkezteko.

Kontratua indarrean dagoen bitartean lantalde horren osaera aldatu behar bada (pertsonetako bat ordezkatzeko), ordezeko kide berriak kontratatutako pertsonen ezaugarri berak bete beharko ditu, eta enpresa adjudikaziodunak horiek egiaztatu beharko ditu. BBUPk, bere aldetik, egiaztatutakoa plegu teknikoan eskatutakoarekin bat datorrela egiaztatuko du.

#### **ENPRESA-SAILKAPENA**

**ENPRESA-SAILKAPENA** ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

#### **H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen araberrako irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

#### **BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

Dokumentazio hau zehaztu beharko da:

- Antzeko sistema edo aplikazioetan esperientzia izanez gero, horien eta BBUPren sistema eta aplikazioekiko baliokidetasunen deskribapena.
- Open Source sistemetakako eguneratzeak eta adabakiak kudeatzeko tresna zentralizatuaren deskribapen tekniko, ezaugarriak eta funtzionaltasunak barne.
- Enpresa-memoria.
- Gauzatzeko metodologia.
- Kontratuari esleitutako bitarteko teknikoaren eta antolakuntzakoaren deskribapena.



**BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

- Lanen programazioa

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

**Eskaintza ekonomikoa.** Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Unitate-prezioen zerrenda

| Precio | Tarea                                                                                 | Unidades Estimadas | Importe Unitario | Importe Total |
|--------|---------------------------------------------------------------------------------------|--------------------|------------------|---------------|
| 1      | Jornada de asistencia técnica para mantenimientos general, por solicitud y evolutivo. | 61                 |                  |               |
| 2      | Hora de asistencia técnica para soporte ante incidentes.                              | 96                 |                  |               |
|        |                                                                                       |                    | Total            |               |

b) Kontratuaren aurrekontua, aurreikusitako erosketa-unitateen arabera

**I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA**

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa  
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):  
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ  
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:  
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

**J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA**

☒ Kontratazio-mahaia

Presidentea:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

### 1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

### **AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

|                             |          |
|-----------------------------|----------|
| Bmax .....                  | 50 puntu |
| (Bmax + BM) / 2 .....       | 48 puntu |
| BM .....                    | 47 puntu |
| 0,8 x BM .....              | 46 puntu |
| 0,6 x BM .....              | 44 puntu |
| Lizitazio-aurrekontua ..... | 0 puntu  |

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta  $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta  $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta  $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta  $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta  $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

(2 x Bi – BM - Bmax)

(Bmax - BM)

### **BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU**

#### **1.- Exekuzioaren memoria tekniko eta metodologia -----35 puntu**

- Proposamen tekniko kontratuaren xedera egokitzea. -----15 puntu
- Sistemarako lan-metodologia. -----5 puntu
- Lanen programazioa: Jardueren iraupen justifikatua, koherentzia jardueren banaketa sekuentzian eta lortutako xehetasun-garapen maila----5 puntu
- Linux sistemarako eguneratzeak eta adabakiak modu zentralizatuan kudeatzeko tresnaren funtzionaltasunak. Plegu teknikoan eskatutakora egokitzea. -----10 puntu

#### **2.- Kontratura bideratuko diren baliabide teknikoak-----15 puntu**

- Kontratuari esleitutako bitarteko teknikoak eta antolakuntzakoak. Hauek baloratuko dira:

- Lantaldea osatzen duten pertsonen ezagutza-maila, kontratuaren xede diren sistemei dagokienez: -----5 puntu
- Hornidura- eta instalazio-faserako metodoak eta harremanetan jartzeko modua -----2,5 puntu
- Gorabeheren arreta-faserako metodoak eta harremanetan jartzeko modua-----2,5 puntu
- Plegu tekniko 3. apartatuan zehaztutako erantzun-denborak betetzeko baliabide teknikoak -----5 puntu.

#### **2.- Berdinketak hausteko irizpideak:**

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

#### **3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:**

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerak bakarrik dagoenean eta lizitazioaren oinarriko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerak daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzailerak daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gaitzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik



#### **K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.  
Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

#### **4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:**

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

#### **L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

#### **M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK**

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

##### **Epeak ez betetzea:**

1. Baldintza teknikoen pleguaren mantentze-lan zuzentzaileekin lotutako gorabeherak konpontzeko epea ez betetzea.

Zigorrak:

- Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 1, garaiz kanpo ebatzitako bost gorabehera arineko.
- Kontratuaren adjudikazioaren zenbatekoaren % 2, erantzuteko denbora gainditu duten bost gorabehera larriko.
- Kontratua suntsiaraztea: Aurreko zigorrak batera hartuta kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 10era iristen direnean, BBUPk kontratua eten ahal izango du.

2. Zerbitzua partzialki galtzen duten sarbide-puntuen % 20ko jaitsieraren aurrean erantzuteko denbora gainditzeak 100 euroko zigorra ekarriko du adostutako ZMAren gaineko atzerapen-ordu bakoitzeko.

##### **Kontratuaren xede den zerbitzua gaizki betetzea:**

1. Informazioa edo datuak galtzea, eta kontratuak irauten duen bitartean landutako proiektuetan gordetako informazio sentikorrerako sarbidea urratzea.

Kontratua suntsiaraztea: Datuak babesteko araudia betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

2. Kontratua indarrean dagoen bitartean eskuratzen den informazioari buruzko konfidentzialtasun-betebeharra ez betetzea.

Kontratua suntsiaraztea: Konfidentzialtasun-betebeharra betetzea funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da, eta, beraz, BBUPk kontratua suntsiarazi ahal izango du.

3. Lantaldeko kideak aldatzea, BBUPk alde aurretik jakin gabe.

Zigorra: Kontratuaren adjudikazio-zenbatekoaren % 1, BBUPri alde aurretik jakinarazi ez zaion lantaldearen aldaketa bakoitzeko.



#### **M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK**

Zigorrik izan bada, ateratzen den zenbatekoa emandako fakturaren zenbatekotik deskontatuko da.

#### **N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA**

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

#### **Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA**

Ez da aplikatu behar

#### **O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA**

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra  
☐ Azpikontratazioaren mugak

#### **P.- SUBROGAZIOA**

Ez

#### **Q.- ERREKURTSO BEREZIA**

- ☐ BAI  
☒ EZ

#### **KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK**

##### **FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK**

Funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen da baldintza tekniko berezien pleguaren 6. puntuan adierazitakoa, hauei buruzkoa:

1. Konfidentzialtasun osoz gordeko dira zerbitzua emateko erabilitako datuak eta dokumentuak.
2. Kontratu honen xede diren zerbitzuak ematearen ondorioz lortutako informazio konfidentzial oro hirugarrenei ez zabaltzea eta haien onurarako ez erabiltzea, arreta berezia jarrita indarrean dagoen Datuak Babesteko Lege Organikoan.